

## EUSKAL HERRIKO BAKEAREN ALDEKO TXOSTENA

*EUSKAL HERRIKO BAKEAREN ALDEKO TXOSTENA deritzona era eginkor eta publikoki adierazten dugu:*

*1.- Gure gizarteak, bizkidego paketsua lortzeko, duen premiazko eta derrigorrezko beharra eskatzen dugu, gure herriaren garapen progresiboa eskura dezagun laguntza eta eraiketa hiritar giro batean.*

*2.- Euskal Herria eragiten duten arazo sozio-politikoak konpontzeko irtenbide bezala indarkeria arbuiazen dugu, hauetarako hartuz soilik irtenbide zilegitzat, irtenbide pakezale eta demokratikoa, gure ustez, sozialki onar daitekeen bakarra.*

*3.- Bizitzarako eskubidea balore nagusizat jotzen dugun, horrexegatik indarkeria erabil dadin arazorik ez dagoela uste dugu, helburuak zilegiak badira ere.*

*4.- Beti, giza eskubideekiko errespetudunak eta bide demokratikoen bidez azalduta eta defendituta izan behar dutela ulertuz, izandako edo izango diren edozein moztetako ideologia edo giza aukera politiko edo kulturala errespetatzen dugu.*

*5.- Azaltzera ematen dugu bortizkeri giro honetan luze bizi ondoren gure gizarteak etika mailan nozitu duen moldakeriatik irtetzeko aukera ematen duen kultura berri eta elkarbizitzaerako oinarri berriak sakonki eta orokorki hedatu eta bultzatu behar dugula.*

*6.- Benetazko, giza eskubide guztientzako errespetuan oinarrituriko pakea dela, bidezko oreka soziala eta iraunkor baten garantia bakarra jakinarazten dugu.*

*7.- Erabateko eta behin betirako ekintza armatuei ekiteari utz diezaiola eskatzen diogu E.T.A.-ri. Honekin batera berresaten diogu gure herriaren aldeko garapena aurrera eramateko ez dugula bere bide indarkeriazale behar.*

*8.- Azkenik, ente publiko eta gizarteko bazkide guztiei ahal diren neurri guztiak martxan jartzeko eskatzen diegu, Euskal Herriaren dinamika sozialaren barruan sar daitezzen bai bortizkeria politikaren aldeko bultzaille eginkorrak izan direnak, bai bortizkeriaren ondorioak jasan dituztenak.*

*Arestian azaltzera eman dugun guzti hori dela eta, helburu hau lortzeko burutuko diren ekintza eta ekinbide guztiekin bat gatoz, zeren gure ahaleginez indarkeriaren amaiera hurbiltzea lortzen badugu, gure etorkisuna eta elkarri laguntzen diogulakoan gaude.*